

Moto festa handia

II. Langostino jaia, etzitik ▶ 6



Alegiako Karmen jaiei hasiera eman diete herritarrek bi txupinazorekin

GIROA ▶ Festa giroan izango dira alegiarrak igandera arte; ofizialez gain, festa alternatiboak izango dira ▶ 5



Txupinazoarekin eta txinbarriaren jaitsierarekin hasi zituzten alegiarrek atzo festa ofizialak. OLAIA ESKITXABEL



LEIRE MONTES

Eskualdeko ehunka lagun, udako kirol ikastaroetan

TOLOSA-IBARRA ▶ Uda Kirolak 2004 kanpaina jarri dute Tolosako eta Ibarraiko udalek abian; kirol eskaintza anitza egin dute aurten ere ▶ 2-3

EZ ERABAKI ETORKIZUNA GU EZAGUTU GABE
ETORKIZUN HAUNDIKO LANBIDEA

- Erresuma Batuko Ileapandegiko III.Maila
- Nazioarteko Pivot-Point Diploma
- Gune Homologatua
- Lan Burtsa, lanpostu indize handia
- Goizeko eta arratsaldeko txandak

San Francisco 39, behea
TOLOSA
Tel. 943 654361

GUREKIN, ZUZENEAN LANERA

www.centrosbeta.com

ADUNA ▶

Uztartza aterpetxean euskara ikasten

Bi astez, 17 lagun dira barnetegian ▶ 4



Belztu azala eguzkirik hartu gabe

Eguzki, solarium eta kremarik gabe belzteko aukera. **Azken berrikuntza Tolosan, 3 minutu besterik ez beltz egoteko.**

Uda honetan goza ezazu azalik beltz eta erakargarrienarekin.

Modu eraginkorra eta ziurra. **Etorri eta ikusi emaitzak.**

Gorrotxategi
Nagusia, 2 - 1. • TOLOSA • 943 67 57 39

UDA KIROLAK ▶

ZER IRUDITZEN ZAIZKIZU KIROL IKASTAROKA? ▶

IGNACIO GABARAIN

TOLOSA, 12 URTE. ZESTA-PUNTA



«Lau urte daramatzat jokatzeko, eta oso gustura nabil. Jokoak eta partiduak egiten ditugu ikastaroan, eta leher eginda heltzen gara etxera; uste baino gogorragoa da».

OIER ZALDUA

AMAROS, 9 URTE. ZESTA-PUNTA



«Hiru urte daramatzat jada zesta-puntako ikastaroan, eta futbolaria baino gehiago atsegin dut. Errebesea, errebotea, bi pareta... teknika ari gara ikasten gehienbat».

OIER

TOLOSA, 3 URTE. IGERIKETA



«Lehen urtea da hau, eta lehenengo esperientzia dut igerilekuan. Hamabost eguneko ikastaroa da, eta oso gustura etortzen naiz. Bihar da guretzat azken eguna».

IRATI

TOLOSA, 3 URTE. IGERIKETA



«Ohitu egin behar dugu uretara sartzen; beldurra kentzen erakusten digu begiraleak. Jolastu egiten gara eta gurasoak begira egoten dira. Oso pozik etortzen naiz».

ANE BALERDI

ALTZO, 9 URTE. AEROBIKA



«Aerobikeko udako ikastaroan parte hartzen dudana lehen aldida. Ordubetokoa dira eskolak, eta koreografiak ikasten ditugu gehienbat; jolasak ere bai».

Sasoi betean, beti

Uda Kirolak 2004 kanpaina jarri dute abian aurten ere Tolosako eta Ibarako udalek; urtero bezala, zabalda da eskaintza: besteak beste, hipika, golfa, aerobika, piraguismoa eta igeriketa dira aukeran

I. ASENSIO - I. ETXEBESTE

Hasi dira asko, eta bukatzeko bidean dira beste batzuk. Tolosako eta Ibarako udalek Uda Kirolak 2004 kanpaina jarri dute abian urtero bezala, eta aurtengoan ere zabalda da egin duten eskaintza: hipika, golfa, aerobika, piraguismoa, igeriketa, tenisa, eskalada, pilota, zesta-punta, urpekaritza eta pilatesa dira eskualdeko haurrek, gazteek eta helduek uztailan, abuztuan eta irailean eskura dituzten kirolak.

Ikastaroetako arduradunek adierazi dutenaren arabera, kirol gehienetan ugarituz doa urtetik urtera izena ematen dutenen kopurua. Pilota ikastaroan, esaterako, 43 ikasle ditu Anizeto Lazkanok, «inoizko kopuru handiena». Aerobika eta igeriketa ere askok eta askok hautatu dute, eta horixe bera gertatuko litzateke beste kirol batzuetan ere gehieneko partaide kopuruak muga izango ez balu.

Zesta-puntako irakasle lanetan aritzen da goizero, Beotibar



Igeriketako ikastaroan urari beldurra kentzen ikasten dute hiru urteko haurrek Igarondan. IRATXE ETXEBESTE

pilotelekuan, Jose Ramon Arregi. Urteak eman ditu atzerrian zesta-puntan jokatzeko, eta bada dira hamabost urte Tolosaldeira itzuli, eta bertan eskolak ematen hasi zela. Ikasleek ahalgin («handia») egiten dute haren hitzetan teknika ikasteko, eta gustura jarduten dutela uste du. Udan ez ezik, neguan ere badute aukera haurrek eta gaztetxoek zesta-puntan aritzeko, hala ere.

Ibarako Belabieta kiroldegian aerobika aukeratu dutenak ere ez dira gutxi. 60 lagun joaten dira Mila Garcia de Iturrosperen eskoletara, eta koreografiak, jolasak, *step*-ak... askotariko ekintzak egiten dituztela esan dute. Askotarikoak dira baita ere Tolosako Igarondo igerilekuan ikasleek ikasten dituztenak. Txikienek uretara ohitzea eta hari beldurra kentzea izaten dute helburu, eta helduagoek hobekuntza ikastaroak dituzte, esaterako.

Futbola bakarrik ez, eta beselako kirolak ere badirela erakusten du kanpaina honek.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

Tolosa. Korreo kalean 70 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera begira. Balkoiarekin. 31.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Nafarroa etorbidean 97 m²-ko etxebizitza salgai, 3 logela, bainugela, 10 m²-ko trastelekua eta garajearekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Lurre auzoan etxe abikia salgai; lorategia, terraza eta bimenetaz hornitua.

Polita. 76. 000.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Kondeko Aldapan etxebizitza salgai, 90 m²-koa eta kanpoaldera begira. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Amarozen etxebizitza alokairuan. Hiru logela, kanpoaldera begira, igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Bidebietan etxebizitza salgai, egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Trianguloan garaje marra salgai. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Igaralde auzoan 120m²-ko etxebizitza salgai, lau gelakoa,

egongelarekin eta jangelarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Andoain. 90 m²-ko etxebizitza, 3 logela, 2 bainugela, igogailuarekin. Pisu altua. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Aparteko. 31.500.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

Anoeta. Eraikuntza berriko etxebizitza, 97 m²-koa, 3 logela, bainugela, trastelekuekin. Mandio. 669 87 19 09.

Berrobi. 70 m²-ko etxebizitza. Bi logela. 23.700.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Bigarren eskuko etxebizitza salgai. 3 gela, egongela, terraza eta sukaldearekin. Mandio. 669 87 19 09.

Amezketak. Duplexa salgai; 70 m²-koa, eraiki berria, igogailua eta berogailuarekin. 28.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.

Goierri. Bifamilientzako etxe abikia, eraikuntza berrikoa. Mandio. 669 87 19 09.

Ordizia. Etxe abikiak salgai. Berriak. Mandio. 669 87 19 09.

Elduain. Etxe abiki berria, 4 gelakoa eta 2 solairukoa. Mandio. 669 87 19 09.

Aia. Bi apartamentu berri salgai, azken solairuko etxebizitza. Ingurune naturalean dago, eta hondartzatik 15 minutura. Bi

gelako apartamentuak, eta garajea aukeran. 29.000.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

Corella. Etxe abiki rustiko berriak, portxearekin, 2 gela, bainua eta sukalde hornitua. Berria, 1.000 m²-ko terrenoarekin. 13.500.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. 669 87 19 09

Tolosa. Taberna salgai, bezeroekin; prezio interesgarrian. 669 87 19 09.

Tolosa. 428 m²-ko pabiloi berria, etxe bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbidea ondoan. 669 87 19 09.

ANE AIERBE

TOLOSA, 8 URTE. AEROBIKA



«Bigarrenez eman dut izena aurten, lehengo urteko esperientzia oso ona izan zelako. Uste baino nekagarriagoa da aerobika, baina oso gustura aritzen gara».

IDOIA ALFONSO

TOLOSA, 10 URTE. TENISA



«Lehendabiziko aldia da izena ematen dudana, eta asko gustatzen ari zait. Asko ikasi dut eta lagun asko egin ditut. Datorren urtean ere tenisa aukeratuko nuke».

JON ECHAIDE

TOLOSA, 12 URTE. TENISA



«Hirugarren urtea dut hau. Futbolaz eta atletismoaz gain, asko gustatzen zait tenisa. Kirola egitera animatuko nituzke denak; tenisean emango dut izena berriro».

MAIALEN QUINQUILLA

IBARRA, 9 URTE. HIPIKA



«Bigarren urtea dut. Iaz asko gustatu zitzaidan eta horregatik etorri naiz berriro. Besteri izena emateko esango nieke, polita delako eta oso ondo pasatzen delako».

IÑIGO ARIZAGA

BERROBI, 7 URTE. HIPIKA



«Zaldia gustatzen zaizkidalako eman nuen izena. Bigarrenez nator aurten, eta asko ikasten ari naiz. Zaldia eza gutzen, garbitzen eta haien ganean ibiltzen gara».



Hipika ikastaroan, ikasleak zaldiei jaten ematen. LEIRE MONTES



Zesta-puntako ikastaroak, atzo, Beotibarren. IRATXE ETXEBESTE

KIKE MOKOROA ▶ TENIS BEGIRALEA ETA KIROL KOORDINATZAILEA

«Kirolaren bitartez gizartean dauden hainbat balore ere landu daitezke»

Leire Montes. Uda Kirol kanpainan tenis eskolak ematen dizkie haur eta gaztetxoei Kike Mokoroa 27 urteko tolosarrak, Imanol Moyanorekin batera. «Oso gustura» dago begirale lanetan, eta «esperientzia aberasgarria» dela dio.

Zenbat umeri ematen dizkiozue tenis eskolak?

Uztaileko lehen hamabostaldirako hirurogeitik gora haurrek eman zuten izena, eta hiru txandatan banatu ditugu. Bigarren hamabostaldian eta abuztuko lehenan jaitxi egiten da pixka bat kopurua, gurasoei eta oportetara joaten direlako normalean. Hala ere, gaztetxo dezente ditugu aurten, iaz baino gehiago.

Tenis eskolak ematen ba al zenuen eskarmenturik?

Iaz Tolosako Uzturpe kiroldegian antolatu zuten teniseko ikastarorako deitu ninduten, eta Uda Kirol kanpainan ere aritu nintzen. Horretaz gain, Majisteritza Soin Hezkuntza ikasi nuen, eta heziketa fisikoko irakasle ere aritu naiz. Badut eskarmenturik, baina, dena den, beti zerbait ikasten dela uste dut: nahiz eta kirol horri buruzko oinarriko eza guerak eduki, hori guztia azaltzen jakitea oso garrantzitsua da; eta behin eta berriro aritzean hartzen da eskarmentu hori.

Gustura aritzen al zara haurrekin?

Oso pozik nago, bai, asko gustatzen zait haurrekin egotea. Etorkizuna, azken finean, umeak dira. Haiek gero eta gehiago prestatu eta entrenatu gero, gero eta etorkizun hobeaz izango dugu guztiok. Haurrek oso txikiak izanda ere, merezi du prestakuntzak, etorkizunerako mesedegarria izango baita.

Aberasgarria al dira horrelako ikastaroak haurrentzat?



LEIRE MONTES

Erabat. Oso ondo pasatzen dute, eta mesede egiten diela uste dut. Eta niri ere bai. Izan ere, kirolaren bitartez prestakuntza fisikoaz gain gizartean dauden hainbat balore landu daitezke: besteak beste, adiskidetasuna, norberaren burua hobetzeko grina, gauzak banatu, elkarbizitza, laguntasuna... Eta hori oso aberasgarria da denontzat.

Hortaz, zure iritziz kirola beharrezkoa da haurrentzat...

Haurrentzat soilik ez. Edozein pertsonarentzat da mesedegarria, ume, gazte, heldu zein

adinekoa izan. Mundu honetan gero eta gehiago sartzen gero, gero eta gehiago dira zure helburuak, gogoak, hobetzeko nahiak. Kirola egitea oso garrantzitsua da zure gorpuztza ondo sentitzeko; eta, era berean, burua osasuntsuago izaten laguntzen du. ◀

TOLOSAKO UDALA
ENKANTEA

1. Helburua.- Nafarroa Etorbidea eta Foruen Etorbidea elkartzen diren tokian dagoen haur parkearen urbanizazioa.
2. Lizitazioaren zenbatekoa.- 333.737,48 €
3. Lanak egiteko epea. 12 aste
4. Espedientea ikusteko: Kopibat (Poeta Lizardi n°2) 943 65 51 66
5. Behin-behineko fidantza.- 6.700,00 €
6. Behin betiko fidantza.- 13.400,00 €
7. Eskaintza egiteko epea eta tokia.- Tolosako Udaltxeko Sarrera Erregistroan, Plaza Zaharra 6-b, 2004-08-09 eguna, eguerdiko ordubata (13:00) arte.

Tolosa, 2004ko uztailaren 12a
ALKATEA

Herri Irratia
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

MERKATAL AGENTEA

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.

VILLABONA ▶

Presoen eguna antolatu du Tximok larunbaterako

Bazkaria, musika eta beste ekintza ugari prestatu dituzte presoak gogoratzeko



Eneko Gorostidi. HITZA

G. AZKUE

Eneko Gorostidi billabonatar presoaren aldeko plataformak, Tximo Herri Ekimenak, egun osoko festa antolatu du larunbaterako.

Presoen egunean, Eneko Gorostidi eta gainerako preso-askatasuna eskatuko dute. «presoak gogoan izatea da festa honen helburua».

Presoen eguna 10:30ean hasiko da, bertaratzen direnek diana izango dute perkusioarekin batera. 12:00etan preso-omenaldiari eta ekitaldi nagusiari ekingo diote plazan bertan.

12:30ean taldekako herri jokoak hasiko dira, bertara biltzen diren artean egingo dituzte taldeak. Eta ondoren, bazkaria izango da Berdura plazan, 14:00etatik aurrera. Bazkarian, bertsoariak eta txiste kontalariak bazkalostea alaituko dute. Mahaitik jaiki ondoren, arratsaldean, trikimanifapoteoa egingo dute Villabonako kaleetan zehar.

Eta eguna kontzertuekin amaituko da, Nekin billabonatarrek eta Jum-jum perkusio talde senegaldarra gerturatu dira.

Festa egun guztian zehar preso-egutunak idazteko aukera izango da.

ADUNA ▶ EUSKARA



17 ikasle etorri dira aurtien Adunara; igandera bitarte egongo dira Uztartza aterpetxean. G. AZKUE

GARAZI AZKUE

Beste egun bat barnetegian. Adunako Uztartza aterpetxean 17 ikasle daude aurtien euskara ikasi eta erabili asmotan, gazteak dira gehienak, eta bi aste emango dituzte Adunan.

Orain hamar egun iritsi ziren barnetegira eta igandean joango dira etxera bueltan. Baina egun hauetakoa oso esperientzia polita izan dela aitortu dute ikasleek.

Bertan daudenetik bost Arabatik etorri dira eta beste hamabi Bizkaiatik; eta aurrez ezagutzen ez ziren arren, oso ongi moldatzen dira beraien artean, «gure arteko giroa oso ona da, ez dugu liskarrik izan», diote. Batzuk lehen aldia dute barnetegian eta beste batzuk jada hirugarren edota bosgarren egonaldia dute modu honetako barnetegi batean.

Lanaldi luzea

Goizean zortzitan esnatzen dira lanean hasteko. 8:30ean gosalduta eta martxan jartzen dira. Aditzak, deklinabideak... eskolek lau ordu irauten dute goizetan. Arratsaldetan, berriz, 16:00etan hasten dira 18:00ak bitarte egoten dira, eta ondoren, tailerrak 19:00ak bitarte.

Adunako barnetegian denbora oso arin igarotzen dela aitortu dute, jolasak, ariketak taldeetan, tailerrak eta irteerak egingen dituzte. Pasa den astean, esaterako, Leaburura egin zuten buelta. Mahalara joan ziren eta Larraitzen bazkaldu ostean

TOLOSALDEA

Euskara barnetegiak Adunan

17 euskara ikasle daude Uztartza aterpetxean; bi aste egingo dituzte



Kantu afaria egin zuten herritarrekin herenegun. HITZA

Altzoko erraldoiaren museoa ikusi zuten. Atzo, berriz, Pagotako parketa joan ziren. Txolarrer irratia ere bisitatu dute ikasleek, aurrez prestatutako irratsaioa egiteko. Eta herriko Gorostidi harrigilearekin ere egon dira egunotan.

Baina hori guztia baino baliotsuagoa da ikasleentzat momentuero euskaraz hitz egin ahal izatea; izan ere, ikasle hauetakoa askok ez dute inguruan euskaraz hitz egiteko aukera. «Barnetegian errazagoa da euskara ikastea, hemen uneoro hitz egin dezakegu euskaraz, baita ikasgelatik kanpo ere», diote. Ikasle gehienak

gustukoa zutelako hasi ziren euskara ikasten, «gure herriko hizkuntza da eta oso polita gainera. Guk ikasten ez badugu norik ikasiko du?».

Herritarrekin harremanetan

Adunako herritarrekin ere izan dute harremanik, herenegun kantu afaria izan zuten aterpetxean bertan, eta han izan ziren zenbait herritar. Beraiekin batera, Dani Oiarbide eta Ainhoa Ansa abeslariak egon ziren gaua alaitzen. Ikasleak bat datoz adunarren deskribapena egiteko unean, «oso jatorrak dira», diote.

VILLABONA ▶

Larunbatean kontzertuak Gaztetxean

Onddo Gazte Asanbladak kontzertuak antolatu ditu bihar gauerako. Naparheid Hill, Ameba eta Klineks taldeak ariko dira bertan. Emankinunak Gaztetxean izango dira 24:30etik aurrera.

ZIZURKIL ▶

Herri batzarra izango da gaur Iriarte etxean

Presoen egoeraz hitz egiteko eta haiei elkartasuna helarazteko herri batzarra izango da gaur Iriarte Etxean. Herri-tarrak 20:30ean bilduko dira Zizurkil goian.

ANOETA ▶

Euskara ikasteko laguntzak emango dituzte

Anoetako Udalak diru laguntza jasotzeko aukera emango die pasa den ikasturtean euskara ikastera joan direnei. Diru laguntza eskatzeko azken eguna ostirala izango da. Horretarako, udaletxeko eskaera orria bete beharko da eta horrekin batera lan egoera frogatu beharko du eskatzaileak, ikasle, langabezi edo jubilatu agiriak aurkeztuz. Eta euskaltegiko zurtagiria eta ordainketa agiria ere aurkeztu beharko dira.

VILLABONA ▶

Etxeberriarri omenaldia egingo diote bihar

Ekainaren 29an utzi zuten aske Lander Etxeberria billabonatarra. Etxeberriak 29 egun eman zituen gose greban aske gelditu aurretik. Orain, herritarrek omenaldia egingo diote Villabonan. Omenaldia bihar izango da, 19:00etatik aurrera plazan. «Omenaldi hau preso bati ongietorria emateko zen, baina azken egunetako gertaearen gordintasuna kontuan hartuta, Oihane Errazkin ere omenaldi honetan gogoan izan nahi dugu. Beraz, Landerren ongietorria, disperstioaren aurkako ekitaldia izango da eta espetxe politika salatzeko ekimenak», diote antolatzaileek.

LIZARBI
Kutxa, mahai, aulki etab.
Altzariak Zurgintza orokorra
Tailak: eskuz eginak Zaharkinen berriztatzea
San Esteban auzoa
Tel./Fax: 943 650 063 • TOLOSA

ALEGIA ▶ KARMEN JAIK

Karmenetan murgildu dira txintxarriak

Txintxarri abesbatzek jaietako kontzertua eskainiko dute; helduak eta haurrak izango dira, gaurko protagonistak



Txintxarriaren jaitsiera adi jarraitu zuten herritarrek. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKIXABEL

Suziriak jaurtikiz iragarri zuten atzo Karmen Jaien hasiera; Udalean, kutur zinegotziak, Hektor Colinasek, plazan bildutako herritarrei jaiak ondo pasatzeko esan ondoren, eman zion su suziari; ondoren, txintxarriaren jaitsiera egin zen; Karmen Jaiak hasi zirenen seinale.

Txikiak, buruhandiengandik ihesi hasi ziren berehala; presoen aldeko pankartaren atzean aurkitzen ziren batzuk; txistu, trikiti eta dultzaina doinuak hasteko zain beste batzuk. Denek, jaien hasieraz gozatzeko aukera izan zuten.

Festa alternatiboak ere paretxu hasi ziren; 07:00etan bota zituzten suziariak Bulebarretik. Jarraian, txorizoa eta sagardo dastaketa egin zuten jai giroan murgiltzen hasteko.

Trikitixa izan zen atzo gaueko protagonista nagusia; herriko plazan, Etxabe anaia aritu ziren jendea dantzari jartzeko saiakeran. Bulebarrean, berriz, Epelde eta Larrañagak jo zuten.

Haurrak eta adinekoak

Goizean goiz oinez hasiko dute eguna jubilatuak; mendi bueltaxoa egingo dute ondorengo hamaiketarako gosea egiteko.

Jaietako kontzertua

Gaur eskainiko dute Txintxarri abesbatzek urteroko jaietako kontzertua Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean.

Txintxarri Txiki abesbatzeko gatetxoek espiritual bat eta Disneyko sei kanta abestuko dituzte. Txintxarri abesbatzako kideek hartuko dute jarraian lekukoa; soinua tresna ugari erabiliko dituzte gainera kontzertuan zehar: txistua, atabala, pianoa... *Down by the riverside* beltz espiritual, *Amodioa* izeneko abesti modernoa... abestuko dituzte.

Bi abesbatzek elkarrekin, eta Alegiako dantza taldearen parte-hartzearekin, abestuz emango diote amaiera emanaldiari; horretarako German Intxausti Alegiako txistulari zenak konposatutako kantu bat aukeratu dute: *Txintxarri polka*. ◀

Elizaren inaugurazioa

Bihar inauguratzen da ofizialki, sei hilabetez lanean eman ondoren eraberritutako San Joan Bataiatzailearen eliza; 11:15ean, izango den meza nagusian aldea bedeinkatuko eta sakratuko du herriko apaizak, Joxi Eguzkitzak; Donostiako Elizbarruti-ko gotzaia, Juan Maria Ugarteren presentzia izango da.

Mezan Txintxarri abesbatzako abestuko dute urtero legez; bihar, Pedro Joxe Peñagarikano Aita frantziskotarraren *Aintza* kantatuko dutela azaldu dute. ◀



Larruazala osasuntsu

IKAZTEGIETA ▶ Larruazala zaintzeko gomendio ugari luzatu zituen Kristina Oterminek atzo Kiroldegian izan zen hitzaldian; jende ugari gerturatu zen hitzaldira, denak emakumeak ziren, gainera. Likidoak edateak, krema hidratatzaileak erabiltzeak... larruazalaren hidratazioan duten garrantzia azpimarratu zuen Oterminek; bestalde, higieena, arropa, oinetakoak... ere larruazalaren duten eraginaren berri luzatu zuen. Erreduren prebentzio izan zen hitzaldian behin eta berriz azaldu zen beste gaietako bat. O.ESKIXABEL

VILLABONA ▶ UDALA

Garagardo Feriarako aparkaleku alternatiboa

Villabonatik edo Zizurkiletik datozenei oinez joateko etortzeko eskaera luzatu du Udalak

OLAIA ESKIXABEL

Gaur hasiko da Irrintzi Elkartean antolatutako Garagardo FERIA; Txermingo ikastolan izango da. Txermin auzoak eta Villabonako hirigune osoak oro har urtero jasotzen dituzten ibilgailu ugarien zama arindu nahian, aparkaleku alternatibo bat prestatu du Udalak: Berria, 1eko kamioien aparkalekua.

Garagardo FERIA burutze den egunetan, Villabonara autotz gerturatzen direnei «zuzenean Berria kalean dagoen kamioien aparkalekura» joateko eskatu du Udaltzaingoa. Bertan, atzeko aldean aparkatzea gomendatu du, bestalde, izan ere han baitago

aparkalekua eta Txermingo ikastola lotzen dituen oinezkoen bidea: «Horixe da autoa aparkatzeko lekurik erosoena eta gertuena, esan bezala, aipatutako oinezkoen bidea erabiliz, Txermingo ikastola oso metro gutxira baitago», zehaztu dute.

Udaltzaingoa, bestalde, Villabona bertatik nahiz Zizurkil behera hirigunetik datozenei oinez etortzeko eskaera luzatu du.

GAUR ▶

EGITARAU OFIZIALA

- 09:00. Jubilatuek antolatutako mendi ibilaldia.
- 10:00. Diana.
- 11:00. Haurrentzako jolas parkea Larraitz auzoan.
- 11:00. Hamaiketako jubilatuentzat.
- 16:00. Toka txapelketa.
- 17:00. Apar jaiak Kale Beheko parkean.
- 19:45. Txintxarri txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua.
- 00:30. Ezein taldea.

JAI ALTERNATIBOAK

- 21:00. Zahagi ardoa.
- 23:00. Bulebarrean: Neubat eta Maitips (Katalunia). Gero, DJ Pirata.

Adinekoekin batera, haurrak izango dira gaurko protagonistak; jolas parkeaz gain, apar jaietan aparretan galtzeko aukera izango dute txikiak.

ONDA
Ondo pasatzen
janaridenda
San Juan, 44 • ALEGIA
Tel.: 943 65 30 40

HORTZ-KLINIKA
Manuel Renobales Iturbe doktorea
M^o Pilar Martínez Andueza doktorea
Larraitz, 15-1. esk.
Tel.: 943 65 41 12 ALEGIA

Larraitz kalea, 14
Tf.: 943 65 35 33
ALEGIA
LARRAITZ
ILEAPAINDEGIA
JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!

ISKIÑA
TABERNA
Goizean Salda
Gauean martxa!
INTERNET
San Juan, 59 ALEGIA
Tf.: 943653097

IBARRA ▶ II. LANGOSTINO MOTO FESTA

Motorren topagune izango da herria asteburu honetan

Era guztietako motorrak izango dira; jolasak, kontzertuak, birak... egingo dituzte



Motor ikusgarriak ikusi ziren iazko edizioan. IBARRAKO UDAL FOTOTEKA



Giro bikaina eta jolasak izaten dira nagusi. IBARRAKO UDAL FOTOTEKA

DANI GIBELALDE

Euskal Herritik ez ezik, atzerri-
tik etorritako ehunka motozale
bilduko dira asteburu honetan
Ibarran, II. Langostino Moto
Festaren baitan. Era guztietako
motorrak izango dira bertan
eta ekitaldi desberdinetaz go-
zatzeo parada izango da. Mo-
tozaletasunerako grina duten
guztiak, beraz, zorioneko dira.
Ibarran dute hitzordua.

Iaz egin zen lehen aldiz moto
festa (Tolosaldeko lagun ba-
tzuek antolatuta), eta arrakas-
tatsua suertatu zen. Antolatzaile-
leek adierazi dutenez, «giri bi-
kaina» sortzen da horrelako

topaguneetan, «lagun artea da
nagusi, eta inor ez da bakarrik
sentitzen».

Larunbat bazkalostean el-
kartuko dira motozaleak le-
henbizi. Ondoren, herriko kale-
etatik bira bat egingo dute, eta
bide batez herria ezagutzeko
aukera izango dute kanpotik
etortzen diren motozaleek.
Gauetan, musika kontzertuak
izango dira: Arima Beltza, Mu-
tuo Desprezio eta DJ Tenaren
emanaldiak izango dira.

Igande goizean, berriz, Gi-
puzkoatik bira bat egingo dute
motozaleek; besteak beste, La-
rraitz, Altzo eta Zaldibiatik bar-
na ibiliko dira elkarrekin. Era

berean, hamaiketako bat egite-
ko atsenaldi bat egingo dute.

Uzturpe ikastolaren ingur-
ruan ederki hornitutako akan-
patzeko gune bat izango da
kanpotik datozen guztientzat;
parte-hartzaile guztiek oroigar-
ri bat jasoko dute sari gisa.

Igandeko bazkariarekin
amaituko da festa. Gehienez
300 lagunentzako tokia izango
da, eta larunbata baino lehen
txartela lortzen dutenek 22
euro ordaindu behar dute, eta
gainerakoek. Moto Festari bu-
ruzko informazioa eta izena
emateko xehetasunak ipini di-
tuzte [www.langostinomoto-
festa.com](http://www.langostinomoto-
festa.com) webgunean.

EGITARUA ▶

ABUZTUAK 17

15:00. Festa hasiera.
18:00. Motorraren jokuak.
19:00. Motorraren bira.
21:00. Afaria.
23:30. Kontzertuak: Arima
beltza, Mutuo Desprezio eta
DJ Tena.

ABUZTUAK 18

09:00. Gosaria.
11:00. Motorraren bira.
13:00. Ibarra itzulerara.
14:00. Bazkaria.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34**Ibarralde.** Osasun etb: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Orendain.** Medikua: 65 55 95**Orexa.** Medikua: 68 22 28**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Etxebeste J.M. Gernikako
arbolaren 3a (Tolosa). 65 10 40.
Erboli O., Lizarraga 7 (Leitza).
112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publi@tolosaldeko
hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetalde. 687 41 00 22

anoetalde@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

LIZARTZA ▶ POLITIKA

EAJk lau zinegotzirekin aginduko du Lizartzan

Egibarren erabakia balio gabetuta geratu da

ERREDAKZIOA

EAJk Joseba Egibarren eraba-
kia bertan behera utzi ondo-
ren, lau zinegotzirekin gober-
natuko du Lizartzan alderdi jel-
tzaleak. Horrenbestez, EAJk ez
ditu hiru zinegotzi kargu utziko
herriarren eskutan eta Egiba-
rren erabakia ezerezean gera-
tu da.

EBBak astelehenean Artean
(Bizkaia) egindako bilera har-

tu zuen erabaki hori, eta alder-
di jeltzaleko ordezkariak aste-
artean Espainiako Hauteskun-
de Batzordean aurkeztu zuten
karguak herriarren esku uzte-
ko erabakia balio gabetzen zuen
idatzia. Bestalde, Egibarrek
PSE-EEko ordezkariarekin bile-
rak egin ditu azken hilabeteo-
tan, alderdi horrekin Gipuzko-
ako zenbait udalerritan akor-
dioak lortzeko asmoz, Donostia
eta Irun kasu.

ELDUAIN-AMEZKETA ▶ ERREMONTEA

Patxi Zeberio San Fermin torneoko txapeldun

D.GIBELALDE

Patxi Zeberio elduaindarra
eta Anjel Lekunberri dira San
Fermin torneoko txapeldu-
nak, herenegun Iruñeko Eus-
kal Jai Berrin Imanol Altuna
amezketarrari eta Iñaki Liza-
sori finalean 40-35 gailendu
ostean.

Bikote irabazlearen hasiera
bikaina erabakiorra gertatu
zen partidaren. Pilotari abiadu-
ra handia emanez, partidua

haustea lortu zuten eta 11 tan-
toko alde ere lortu zuten (33-
22). Patxi Zeberio bikain aritu
zen lehen txanpa horretan.
Tantoa amaitzerakoan ere
ederki aritu zen. Altunak eta
Lizasok arriskatzeari ekin zio-
tenez markagailuan hurre-
ratzea lortu zuten (38-35), bai-
na ordurako beranduegi zen.
Lekunberriren bi paretako jo-
kaldi batek eta Zeberioaren
beste pilotakada indartsu ba-
tek eman zioten amaiera fina-
lari.

Patxi Zeberio pozik azaldu
zen partidaren ostean. «Ez
duzu egunero txapel bat lor-
tzen eta are gutxiago horrela-
ko bikote indartsuen aurka.
Konfiantza handiarekin hasi
naiz eta zuloa egin dugu».

iragarki laburrak ▶

LAN ESKAINTZA

Taberna. Astebukaeratarako
neska bat behar da barrarako.
Tlf: 943-69 19 33.

Taberna. Tolosaldeko taberna
batean lan egiteko neska bat
behar dugu. P.K. 171 Villabona.
Alegian. Emakume bat behar da
ebeko lanak egiteko Alegian.
Orduetgia 10:30etik 14:30era.
Tlf: 943 65 30 34 (deitu
arratsaldeetan).

EROSKETAK

Bateria. Bateria erosiko nuke
baldintza onetan. Tlf: 943
65 19 71 / 943 65 37 94.

UDALEKUAK ▶

Udalekuak: oporraldiko opor

Aukera polita dira umeentzat opor modura ez ezik,
euskaraz ez-ohiko jostaketarako ere



Atzo eguerdian joan ziren Pasaira eta Alkizara. DAVID ANAULT

JAIONE ASTIBIA

Udako oporraldia iristen denerako, ikasle jendearentzat batez ere eta beren familientzat ere bai kasu askotan, gutxi-asko guztiak hasten gara opor egun batzuk igarotzera nora joanen garen pentsatzen batzuk, azkeneko mailetak prestatzen besteak... Aisialdiko boladatxo antolatzen behinik behin.

Ikasle jendea aipatuta, udako oporraldi luzea etortzen da gogora, aurretik duten bi hilabete eta erdiko aisialdirako betaz, ikasturtea ongi joan bada, noski. Eta ez bada, ikasteko ere ordu batzuk hartu beharko dira. Baina zertan ari gainerako guztian? Aukera bat da, horixe, denbora pasa egotea: Beste bat, neguan zehar egin ezin izan den ikastaro bitxi hori egitea; Beste bat, senide eta lagunengana egunetako bisitaldiak egitera joatea; Beste bat udalekuetara joatea...

Azken aukera honi helduko diogu oraingoan, izan ere jakin baitugu gure herrietan hainbat gaztetxo horrela joan direla: udalekuetara.

Beste herrietan bezalatsu, gurean zonaldeko Euskara Zerbitzuak antolatu ditu udalekuak. Nafarroako gainerako euskara mankomunitate eta zerbitzuekin —Iruñekoak ez du parterik hartzen — batera. Jada Aste Santua baino lehenagorako, adinaren arabera sailkatutako lau multzo desberdinetako eskaintza helerazi zitzaizen guraso zein ikasleei, eskolaren bidez. Handik gutxira zerrenda osatuta zegoen.

Euskara mankomunitate hauek bideratzen dituzten udaleku hauetara, Nafarroa osoko 700 ume inguru joaten dira, ahal dela bakoitzak aukeratu duen lekura eta datan. Izan ere, udaleku hauetako lekua mugatua da eta toki bakoitzeko txanda desberdinak prestatzen badira ere, ez da beti nahi dena lortzen. Zozketaz erabakitzen dira, bai lekua izatea, bai herria, eta bai txanda ere.

Aurten, zonaldetik 31 ume dira udalekuetara joatekoak edo batzuk jada izanak dira, zazpi txanda desberdinetan: 21 leitzarrak dira eta gainerakoak Goizuetakoak dira Areso-

tik, berriz, ez doa inor, beste alditan ez bezala.

Kasu honetan Pasai Donibane (lau lagun) eta Alkizara (gainerakoak) joateko aukera egin zuten, zazpi egun egitera. Pasaira joandakoek itsasoarekin ikustekoa duten ekitaldiak dituzte aukeran: bela, surfa, txangoak txalupaz... eta Alkizakoek ere ez dute inbidiarik izateko aitzakiarik: hondartza, Txingudin piraguan ibili, mendi ibilaldiak... baituzte aukeran.

Noski, udaleku hauen helburua umeek ongi pasatzea da, eta ohikoak ez diren ekintzak praktikatzeko ere bai, esate baterako.

Baina ez dira helburu bakarrik eta gainera, garrantzitsuen modura har litekeena, zalantzarik gabe, euskarazko giroan ibiltzea da. Kontuan izanik Nafarroa osoko umeak direla, hauentzat, euskara modu naturalean hitzegun eta erabiltzea da xedea: hauetako askorentzat ikastetxean bakarra erabiltzen duten hizkuntza baita euskara, gure herrietan ez bezala. Zazpi egun hauek guxtenez hori ikusteko baliagarri izan daitezke.

LEITZA ▶ INGURUMENA

46.486 kilo beira jaso dira sei hilabetekoan

Horixe da Leitzan ekaina bitartean beira birziklatzeko edukiontzietan jaso dena

J. ASTIBIA

Guztira 46.486 kilo beira jaso dira Leitzan aurtengo lehen-dabiziko sei hilabetekoan. Eskuratu diren datuen arabera, horixe da Leitzako herrigunean kokatuta dauden beira jasotzeko edukiontzietara herri-tarrek bota duten beira kantidadea.

Banaz beste hileko 7,7 tona beira eraman dituzte birziklazio zentrura, baina nabarmena da apirileko datua, izan ere hilabete horretan bakarrik, jasotako guztiaren % 24a bildu baitzen (11,1 tona). Hau Aste Santuko oporraldiaren ondorio zuzena da, batez ere herrian ostalaritzako sektore-

ak izaten duen lanarengatik, garai horretako turismoa dela eta.

Kantitate hauek, biztanle kopuru beretsua duten beste herriekin parekatuz gero, baxu antza dabilzela argitu dute enpresatik bertatik: 2,6 kilo beira biztanleko eta hila-beteko, besteen 3-4 kiloren aurrean.

Bestela egiaztatu izan denez ere, beira bestelako zaborrengandik bereizten ez duenik ere bada, zaborren edukiontzira botaz.

Beira biltzeko zazpi edukiontzi daude herrian saka-bantuta eta Ecovidrio enpresatik hilean behin etortzen dira hustutzera.



Mujika gogoan izan dute

LEITZA ▶ Atzo, uztaillak 14, hiru urte egin zituen Jose Javier Mujika hilik suertatu zela ETAK bere aurka bururututako atentatuan. Senitarterkoek eta lagunek gogoan izan zuten, bere oroitarrian lore eskaintza eta bere aldeko otoiak ginez. Oroimenezko ekitaldi ofiziala igandean izanen da. J. SAIZAR

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Sendi ekintzaren San Bartolometako zozketarako txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkartearen tabernan, Arkaitz Azpin eta Txumitxan.

Tolosa. Irailean EGA ikastaroa egiteko matrikula zabalik dago Aitzol udal eskalategian. Azken eguna. **Tolosa.** Haritzepe jubilatuen elkartearen XVII. urteurren ospakizuna. 16:00etatik 18:00etara bingo berezia eta 18:15ean txokolatea eta bizkotxoak.

Zuzurkil. Herri batzarra presoen egoeraz. Iriarte ebexan 20:30ean.

ERAKUSKETAK

Altzo. *Altzoko Erraldoia, Altzo ezaguna egin duen gizona.*

Hernialde. Luis M. Nuñezren margolanak Ostatuan.

Ibarra. Argazkiak eta marrazkiak. Kultur Ebexan.

Tolosa. Charo Berraren margolanak Lanbroan.

KIROLA

Tolosa. Paleta Txapelketa: Bengoa-Goikoetxea/ Iñaki Txapartegi; Zabaleta-Urdanpilleta/ Yugueros-Aldazabal; eta Lontxo-Nazabal/ Bengoa-Goikoetxea. 19:00etan Berazubiko frontoian.

Tolosa. Alpino Uzturre elkarteak astebururako mendi irteera antolatuta du 15 eta 18 urte bitartekoentzat Pirinioetara. 943 652789.

ZINE-KLUBA

Ibarra. Udako zinema aire librean. *Eres mi heroe*, 22:00etan, udaletxe ondoko frontoian.

Arkitekto ahaztua

TOLOSA ▶ Fidel Iturria Bizkarrondo (1860-1922) tolosarrak lan ugari egin zituen Bizkaian; Deustuko eta Getxoko udal arkitektoa izan zen

JOXEMI SAIZAR

Tolosan ezezaguna da, baina Bilbon eta Bizkaian lan asko egin zuen. Arkitektoa izan zen eta, besteak beste, Bilboko Elkarte Filarmonikoaren kontzertu aretoa egin zuen. Fidel Iturria Bizkarrondo zuen izena, Tolosan jaioa 1860ko apirilean eta Deustun hila 1922ko maiatzaren 30ean.

Elkarte Filarmonikoaren mendeurrenean —urtarrilaren 26an izan zen— atera zen berripapertera Iturriaren bizitza eta lana. Jesus Muñiz Petralanda historialariak —Bizkaiko Elizbarrutiko Museoaren arduraduna— berari buruzko lan bat idatzi eta argitaratu zuen eta arkitekto tolosarrari buruzko hitzaldia eman zuen Filarmonikoan.

Iturriaren bizitzari buruzko datu asko ez dugu. Txikitandik eraikuntza munduarekin izan zuen erlazioa aita, Manuel Iturria Usarraga, igeltseroa baitzen. Bere ama, Pascuala Bizkarrondo Otegi, tolosarra zen baita ere. Eladio anaiak, hiru urte gazteagoa, arkitekto lanbidea aukeratu zuen baita ere.

Gaztetan Bizkaira

Madrilgo Arkitektura Eskolan burutu zituen ikasketak 1887an. Ikastetxe horretan ikasi omen zuten XIX. mendeko azken laurdenetik aurrera Bilbo Handiaren berrikuntza arkitektonikoa egin zuten arkitekto gehienek. Eladio anaiak hurrengo urtean bukatu zituen ikasketak eta bi anaiak berehala joan ziren Tolosatik Bizkai aldera bizitzera, Turtziozko hi-



Fidel Iturria. HITZA

lerria (1889), San Ignacio parrokia ondoko Ospitale-Egoitza (1890) eta hiltegia (1892) egin baitzituen Eladiok. Lan hauek Getxoko udal arkitekto izan zen garaian egin zituen. Bere anaia Fidelek ordezkatu zuen 1894tik interinoki eta 1910etik ofizialki. Hau ez zen izan Fidel Iturriaren kargu ofizial bakarra, 1888tik kargu bera baitzuten Deustun, ia hil arte. Bere lanaren zati handi bat herri horretan egin zuen, bai ur bideraketa, hirigintza, estolderia eta espaloi eta bideen eraikuntza bezalako alor teknikoetan, bai zenbait egoitzaren eraikuntza eta berrikuntzari buruz. Horre-

gatik, Deustuko San Pedro plazaren irudi tradizionala, gehienbat, bere eskutik sortu zela esan daiteke. Udaletxea, San Pedro eskolak, kioskoa eta elizaren ataria berritu zituen. Lan horiek desagertuta daude. Bi herri horietan egindako lanaz gain, Bizkaiko Elizbarrutiko arkitektoa izan zen 1900etik 1905era, gutxienez. Kargu honetan ere bere anaia Eladio ordezkatu zuen. Bere garaian zuen izen onaren frogak erakunde garrantzitsuenetako zuzendaritza eta aholkularitza organoetan egotea da: Basurtoko Ospitale Zibileko Osasun Juntako kide, Arte



Bilboko Filarmonikoa. HITZA

eta Ofizio Eskolako lehendakariordea eta haroztegi tailerreko arduraduna, Bilboko Udalaren fatxada artistikoen lehiaketan epaimahaikide, anaiarekin batera. Bere bulegoa Gran Via 33n zuen, 1921ean behintzat.

80 bat lan Bizkaian

Zerbitzu eta azpiegiturretan lan ugari egin zuen Fidel Iturriak Deustun —batez ere— eta Getxon: udal hiltegia, iturri publikoak eta labaderoak hainbat auzotan, udal eskolak, udaletxea —egungo Getxoko udaletxea hasi zuen—, etxebizitzak, oilarren zirkoa... Arkitektura industrialaren alorrean ere badu lanik: Barandiaran pintura fabrika, Artiach irin fabrika, Heppe tailerra... Familia aberatsentzako etxe ugari egin zuen. Erlijioarekin zerikusia duten hainbat lan ere egin zuen. Muñiz lanean larogei bat obra aipatzen dira, 1888 eta 1920 artean eginak Bizkaian zehar.

Elkarte Filarmonikoaren egoitza 1902an proiektatu zuen. Estilo modernista du, jatorri frantziarrekoa. Inaugurazio kontzertuetan —1904ko urtarrilaren 26an eta 27an— Pariseko Schola Cantorum eta Les Chanteurs de St. Gervais aritu ziren.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Uxue Mugerza Goenaga
(Tolosa). Zorionak 24. urtebetetzean.
Aita, Mariaje eta Mikelen partetik.



URTE ASKOAN
Enara Amiano (Altzo).
Gaur 5 urte.
Zorionak ebekoien partetik.



URTE ASKOAN
Paula Bonilla (Tolosa).
Gaur 8 urte.
Ebekoien partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!